

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko irailak 18 / II. urtea / 42. zenbakia

Azken txakolingileak

Zubian Barna



BINGEN AMADOZ

Orduko euriteek ekarri dituzte oraingo loiak eta garai oneko hitz handiek txarreko negarrak. Kontuetan suberapita edukitzera ohituta, Nafarroako agintariek orain urte gutxi uste zuten, urrezko arraultzak eman behar zituela beti esku-arteko oiloak eta harroko mintzatzeaz gain, sekulako handikeriak egiteko prest zeudela ere erakutsi zuten: hemen autobidea, han urtegi eta hor autobia pare bat eta unibertsitate berria eta gainera lehen mailako autonomia dugula frogatzeko ahalik eta konpetentzi gehien eskuratu... Oiloa ederki hustiratu eta egun batetik bestera zahartu eta arraultza gehiago emateko gauza ez dela geratu zaigu.

37.000 milioitako superabita izan eta hurrengo urtean 22.000ko diru zuloa. Atera kontuak, nolako aurpegiak ikusten diren orain. Jakina, egun, aginteko jabeak direnek lehenagokoei leporatzen diete hondamena, ordukoen laguntzaileak, berriak izan zirela guri ahortzi-arazi nahiean edo...

Bainan nor da hauzian erru gehien daukana? Dirua purrustakan gatazko agindua eman zuena edo ta oposiziotik politika horren laguntxoren papera bete duena? Biak dira eguneko egoera larria sortu dutenak, eta beraz euritakoarekin kirtena sostengatzen duenak ekaitzari eusteko indarra egin dezala, beren lagun izandakoekin batera ibili baitira hai-ze oroak mugi-arazten.

Larritasun ekonomikoak agian mesedea ekarriko die Itoitzeko lurrei. Urtegiaren proiektuak ez du gurean soberako poztasunik sortu. Madrileko boterea eta bide batez edota horrexegatik Nafarroako agintariak ere izan dira orain arte bere defendatzaileak sutsuenak. Geroz eta bidegarritasun gutxiago ikusten zaie Herri-Beherako lur ureztagarriei eta goikaldean inork ez luke, betidanik begien aurrean izan ditugun lurak urpean galtzea. Haziendako egoera nolakoa den ikusirik, ez dut uste, urtebetez honuntza erabakiak hartzeko ahalmena dutenak, interes ilunak edo gutxienez arrotzak dituen Itoitzeko urtegia bezalako proiektu garestiak martxan jartzeko ausardirik izanen dutenik. Edozen modutan garbi dago gizakumeak ez duela aurreko esperientzietatik ikasketa handirik aterratzen. Prebisio-eza nabarmena da gure gizarteko ezaugarrietako bat. Behi gizenak eta meharak elkarren segidakoak direnik ez omen zaio inori bururatzen, dirudienez.

Ia noizpait, puxketan banatu aurretik txerria hiltzen ikasten dugun lehenbizi eta ia puxka horiek gosea edo behintzat beharra dutenei iristen zaizkien.

Nafarroan, orain dela 30 urte, 1.200 hektarea zeuden txakolinaren produziorako, Agoiztik Etxauriraino doan aldean, Iruñerria barne. Gaur egun ez dira dozena bat izango oraindik horretan ari direnak. Urte guzti hauetan, Erribera eta Errioxako ardoek eureganatu dute administrazio eta kontsumitzaileen arreta, eta lehen hain ohizkoa zen ardo bizi hau, galtzear dago. Berarekin batera, azken txakolingileak.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Dos bardenas para ti izeneko erakusketa ikusgai dago Iruñeko Gaztediaren Etxean, eta gaur bertan izanen da azken eguna. Hiriko udalak antolaturik, Asuncion Marin Murchantekoa eta Jesus Ukar San Martin Unxeko artisten lanak ikus daitezke bertan, Nafarroako zonalde berezi honi buruzko gaiak bereziki landuta.

Cristina Garcia Rodero argazkilariaren erakusketa ikusgai dago Iruñean, Zapateria kaleko udal aretoan, irailaren 27a arte. 'España oculta' izenburupean, bertan biltzen dira Puertollanoko artista honen argazkirik famatuenetakoak, denak ohitura, folklora eta bizimodu bati buruz begirada sakonak. Frankotan saritua, argazkilari honek Espainian dagoen famatuenetakoa da mundu osoan, eta arraroak dira bere izena eta argazkia ez dakarten katalogoak eta argazki bildumak. Hain zuzen ere, erakusketaren bildumaren liburua 3.500 pezetetan eros daiteke.

Artistak bideetan izeneko erakusketa ikusgai dago Gareseko Kultur Etxean, gaurtik aurrera, eta urriak 5 bitarte. Bertan ikus daitezke Haize Berri Nafarroa Behereko elkartean paratutako lanak, bestaldeko artistenak. Erakusketa honetan bereziki pintura eta eskulturak antzeman daitezke, eta gehienak hemen ezezagunak izanda ere, bada pa-

Araitz-Beteluko eguna ospatu da asteburu honetan Atallun, egitarau polit batekin. Zazpi herrik osatzen dute ibarra, eta antolatzaileen asmoa izan da «herrien arteko hartu-emanak indartu, komunitate bat osatzeko sentipean sendotu eta herri-keen parte hartze bultzatzea».

Egitaraua bihar larunbata, hilak 19 hasiko da, arratsaldeko bostetan izango den umeen jolasekin, eta bederatzieta afaria izango da. Hamaiketan, kontzertua herriko plazan, 'Haitzetan' taldearekin, eta hamabi t'erdietatik aurrera, dantzaldia. Azkonebieta eta Jokin trikitilari-ekin.


Igandean, hilak 20, diana izanen da goizeko zortzietatik aurrera eta herrien zehar. Hamaiketan zantzarra eta txalaparta, eta eguerdian, meza. Ondoren artesania erakusketa zabalduko da eta bertsolariak izango dira, eta bazkalostean bigarren bertso saioa entzun ahal izango da. On-

rada ederra Iparraldean egiten den lana ezagutu ahal izateko. Honen aurretik Izurako Kultur Etxean ere paratu zen erakusketa.

MUSIKA



Oskorrik joko du bihar larunbata, Noainen, Errondako kontzertuen egitarauaren barruan. Kontzertu hauen bidez Iruñerria inguruan dauden herrien arteko lotura



doren dantzaldia, 'Astunalde txiki' taldearekin, eta herri kirolak iragarri dute arratsaldeko seitarako. Zortzi t'erdietan, trikitilariak berriro. Araitz-Beteluz go-

zatzeko asteburu aproposa, beraz, honakoa, are gehiago Nafarroan festak agortzen ari diren garaian, eta dena normaltasunerantzeko bidean ari denean.

(Alemania) Accademia Filarmonica joko ditu Sammanrini, Bach, Corelli, eta Fux konposigileen lanak, denak XVII eta XVIII mendetakoak. Talde hau 1666an sortu zen Colonial, Berpizkunde garaian zabaldu ziren akademien antzerakoa. Taldea Daniel Spector, Christine Kyprianides, Christoph Anselm Noll, Veronika Strehle eta Manfred Zimmermann musikariek osatzen dute.

Cojon Prieto Azabache y los Guajalostes taldeak garu ostirala joko du Altsasuko Gaztetxean, festak direla eta han antolatu den egitarauaren barruan. Larunbatean, Salvate si puedes eta Tiron taldeek joko dute bertan, gabeko hamr t'erdietatik aurrera.

ANTZERKIA



Trokolo antzerki taldeak 'Zapartako' lana eskainiko du bihar larunbata, hilak 19, Uitzin, 'Correpueblos' Nafarroako Gobernuak antolatutako egitarauaren barruan. Nafarroa osoko herri txikietan egon ondoren, honekin amaituko du bere ibilbideak ekainaren 27an hasi zen egitarau honek. Igandean, halaber, 'Ilargi' taldeak 'Cuanta chispa' antzezlan talularatuko du Mañerun.

ZINEMA



'Robocop' pelikula famatuaren euskarazko bertsioa izango da ikusgai bihar larunbata Uitzin, 'Correpueblos' egitarauaren barruan. Etzi, igandean, Mañerun 'Big' filma ikusi ahal izango da, programa beraren barruan.

'El Cabo del miedo' pelikula ikusgai izango da Tafallako Cinema Españolan heldu den ostegunean, hilak 24, arratsaldeko zortzietan eta gabeko hamar t'erdietan. Bertako Kultur patronatoak antolatuta, sarrerak 175 pezetetan salduko dira.

ERRAN DUTE

ASTEKO PERTSONAIAK

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

6

Aurten UEFAn arituko gara».

Roman Kosecki
Futbolaria

«Estatu espainolak federalismora jo beharko du azkenean».

Juan Cruz Alli
Lehendakaria

«Udal ikastolako ikasleak klasera azkar sartzen ez badira, galduko dute matrikulara duten eskubidea».

Santiago Cervera
Zinegotzia

«Aurtengo Nafarroa Oinezek euskara berdearekin lotzen duen ideiarekin puskatuko du».

Miguel Diaz de Cerio
Erentzun ikastolaren zuzendaria

Rigoberta Menchu



Bake Nobelerako hautagaia

Bake Nobel Sarirako hautagai den 'quichea' bere azken liburua aurkeztu eta Guatemalan bizi den egoera azaltzeko egon da aste honetan Nafarroan, Komite Internazionalistek gonbidatuta, eta Europa osoan zehar egiten ari den giraren barruan. Bertako Nekazar Batasunerako Elkartearen (CUC) kidea, murgilduta dago Guatemalako egoera konpontzeko eta indioen giza eskubideak defendatzeko. Hain zuzen ere, hori du borroka gustokoena, eta Nafarroan salatu zuen haiei zaie errespetu falta: «gizartearen % 80ak indioak dira, baina goiko kargutan ez dago bat bera ere ez».

Javier Pomes



Ekonomia kontseilaria

Nafarroako Gobernuak 22.000 milioi pezetako zuloa egin zuen iaz, aurretik zegoen 37.000 milioi pezetako superabita jan eta Aurreko urteetan egoera ezin hobean egon eta gero, sobrefinantziazioa ere bazegoela eta, UPNko gobernuari egokitu zaizkio garai txarrak, ekonomian hain ohizkoak nola azaldugaitzak diren horietakoak, eta aurretik egindako inbertsio —herrilatan, bereziki— guztien etekinak ezin izango dituzte dastatu erregionalistek. Orain, Madril ordaindu beharreko kupoa murrizten saiatuko da Allirren gobernua.

Felipe Gurrutxaga



Abokatua

Felipe Gurrutxagari ez ezik horretan ari diren beste abokatuei eta intsumisoei ere garai txarrak heldu zaizkie. Oraindik epaiketa bati egindako errekurtsioa erabaki behar bada ere, intsumiso frankori heldu zaio dagoeneko epaiketarako data eta maiatzarako laroei bat epaiketa izan daiteke Nafarroan. Bitartean, Gurrutxaga Oscar Navascues soldadua gurasoekin ari da lanean, hospitalaren informeen arabera ezindua bait dago soldadutza egiteko. Gurrutxagak adierazi zuenez, «bide legal guztiak agortuta daude, eta libre uzten ez badute bere bila joaneko gara».



Larraungo herrietako gazte koadrilak arituko dira Arruizen. Argazkian, Uitz.

Herri Kirola Arruizen

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Arruizteko (Larraun) festak gaur bertan, ostirala, hasiko dira, gabeko hamaiketan gazteen artean bertako elkartean egingo den herri afariarekin. Hamabietan suzuria botako dute, eta ondoren dantzaldia, 'Trakets' taldearekin. Larunbatean goizeko ha-

mabietan erronda izango da, etxez etxe eta janari eta edari bila. Arratsaldean umeendako jolasak eta platoari tiro txapelketa izango da, eta seietan herri kirola, Larraungo herrietako gazteen artean: Alli, Aldatz, Arruiz, Uitz, Gorriti, Azpiroz eta Errazkin-goen artean, hain zuzen. Ondoren, mus txapelketa irekia. Ga-

bez, berriro dantzaldia. Igandean, eguerdian, herri meza izango da, eta ondoren, aizkolariak: Nazabal eta Barberenaren arteko lehia. Lehendabizikoak hamar enbor moztu beharko du, eta bigarrenak zazpi, norgehiagokan. Eguerdian mus txapelketaren finala, eta arratsaldean aizkolariak berriro.

Barbarin, ehiztariak fin

P.U. / IRUNEA

Barbarin ez da oso herri eza-guna izango Santesteban de la Solanatik kanpo, eta bertan bizi diren 125 bizilagunek ez dituzte kanpokoan bisita asko jasoko, ezta festetan ere, Lukin, Arronitz edota Iguzkitzatik izan ezean. Baina hurbiltzen direnek badakite zertara joan, larunbatean izango den tiro txapelketara joango direnek, batez ere.

Orduan izango da festetako ekitaldirik erakargarrienetakoa. Larunbateko bederatzi t'erdietan, ehizarako ibilbidea zabalduko da, ehiztarien gozamenarako. Ohizko platoari tiroan makina bakar batekin egiten bada ere, hemen hiru edo lau paratzen dira. Ehiztariarendako zein ikusleendako askoz erakargarriagoa da, emozio eta joku handiagoa eskeintzen bait du.

**GAZTEK
ANTOLATUTAKO
JAIK**

Bertako gazteek —beste hainbate herri txikietan gertatzen den beza-

laxe— antolatutako jai hauek gaur ostirala hasiko dira, gabeko zortzietan botako den txupina-zoarekin, eta ondoren herri afaria izango da herriko plazan. Ondoren, musika, Maraton orkestrarekin goizaldera arte.

Larunbat goizean, auroroekin hasiko dira jaiak, Lizarrerrian eta Nafarroako zenbait aldetan tradizio handiko ohitura dena. Bederatzietan, musika eta berbena izango da, egunero bezala. Igandean, ordubatean, meza izango da patroien omenez, Aires de la Ribera jota taldearen laguntzarekin, eta ordubietan, mus eta partxis txapelketak izango dira. Gabeko bederatzietan, musika eta berbenak, goizaldera arte.

Igandean, auroroak izango dira berriro ere, eta mezaren ondoren, mus eta partxis txapelketen finalak. Ondoren, jota lehiaketa. Astelehenean amaituko dira jaiak atxuraren jaurtiketaren bigarren txapelketarekin, Martzillan egiten denaren antzekoa. Azkenean, gabeko bederatzietan amaituko dira jaiak.

Arrozaz asetzera, Antsoainera

P.U. / IRUNEA

Bihar, larunbata, egingo den paella erraldoia izango da Antsoingo jaien egitarauaren ekitaldirik azpimarragarrienetakoa, gaur ostirala hasi eta igandera arte iraungo duten jaietan gauza bitxi eta ikuslekoak egonda ere. Paella hau 550 lagunendako prestatuko da, eta horretarako hamabi laguneko talde bat ari da lanean duela hilabetetik hona, Aristu atarrabiarrak zuzenduta.

Izan ere, horrelako paella egitea ez da goizean pentsatu eta eguerdian bazkaltzeko egin daitekeen horietakoa, talde osoaren artean koordinazioa eta elkar ulertze handia eskatzen bait du enpresak. Astean behin biltzen da taldea, aurretik egindako saioetako bideoak ikusteko eta bakoitzaren lanak zehazteko. Tresneria duela bi urteko Nafarroa Oineze-ko paella egiteko erabili zena izango da, eta arrakasta ia ziurtatuta dago, Aristu ere aditua bait da horrelakoetan.

Aurtengo egitarauaren barruan ere aipatu gabe ezin uztekoak dira entzierro txikiak, larunbata eta igandean arratsaldeko zazpi t'erdietan izango direnak, eta baita emakumeendako kafe-kontzertua ere, aurtun lehendabiziz egitarau ofizialaren barruan

sartuta. Kafe-kontzertu hau duela zenbait urte hasi zen, eta urtetik urtera arrakasta handia lortu du, herriko emakume franko biltzerainokoa. Ezkaba Ikastetxe Publikoan izango da igandeko arratsaldeko zazpitan.

Aurtengo egitaraua Gazte Berri Kirol eta Kultur Patronatuak osatu du lehendabiziz, orain arte beti Udaren Kultur Batzordeak

bait zuen horren ardura. Juan Carlos Martinez Kirol koordinatzaileak azaldu duenez, era honetan askoz koordinazio handiagoarekin egiten diren gauzak «Kultur Batzordea nahiko gauza irreala bait da askotan, norbaitengana jo behar izate-

kotan». Antsoingo jaiak San Kosme eta San Damianen omenez izan dira betidanik, hau da hilaren 26an, baina aurtun aurretatu ziren Iruñeko Navarrerria kaleko San Fermin Txikikoekin topo egiten zutela eta. Baina Iruñeko bigarren jai hauen antolatzaileek ere ideia berbera izan zuten, eta biak, berriro, egun berberetan ospatuko dira.

Egitaraua osatzeko argi soinuak izango dira bihar eta igandean, eta berbenak, gaiteroak eta zezen-suzkoaz gain, kaldereten lehiaketa, dantzak, halterofilia eta taekwondo exhibizioak, eta haurrentzako ikuskizun franko izango dira.





Txakolina Nafarroan

Bakioko txakolingorria edota Hondarribia eta Getariako txakolin zuria ez dira, ezagunenak iza-nagatik, Euskal Herriko bakarrak. Nafarroaren bihotzean, oraindik txakolina zapaltzeko erabiltzen ziren txarлак dau-de zenbait herri-tako etxe-ko so-toetan, patatak edota lanabesek estaliak. Eta etxe horien artean, oraindik badaude txakolingorri egiten dutenak, ahaztuak, mendez mende ohiturari eutsi diotenak. Nafarroako azken txakolingileak di-ra.

Iltzarbeko txakolingorria

M. KAPITANSORO / ILTZARBE

Iltzarben, Olloibarren, Iruñetik hogeikilometrora, Nafarroako azken txakolingiletakoak gelditzen dira, etxe frankotan, oraindik ere txarлак —prentsak— badaude eta, nork daki, oraindik sotoan zoko ezkuturen batean duela lau edo bost urteko uztaren botilaren bat ere, armiamaren sareak estalita, ez dagoen.

Victor Artazkoz da aurten mahastiekin jarraitu duen bakarra, duela gutxi arte herri osoa mahastiz inguratutik bazegoen ere, eta etxe-koandreak mahastiekin jarraitzea animatzen badu ere —«oso ongi landua dauka»—, lan gehiegi ematen duela dio berak. Aurten oso uztat ona ateratzen da eta mahatsak hartuta dute dagoeneko kolore gorri iluna. Zapore goxoa. Gaitzerdi, mahats hoberenak jan egiten bait dute Artazkozdarrek. «Txakolinarako txarrenak». Nafarroako herri askoren historia bera.

NAFARROAN ERE EZEZAGUNA Duela gutxi arte ordea, oso arrunta zen Nafarroako Pirinioaurreko alde



Victor Artazkoz, Iltzarben gelditzen den azken mahastiaren aurrean.

OSKAR

honetan, Agoiztik Etxauriraino, eta Victorren etxean betidanik ezagutu dute mahastia eta ardoa. «Duela 45 urte, nik hamasei urte inguru nituela, ekarri zituen aitak mahastiak, Bidaurretatik, eta geroztik betidanik egin dugu etxean txakolina». Hala ere, garai

hoberenak ezagutu ditu, ezagutu ere, ardo bizi honek, eta lehendabiziko uztaren botila bat gordetzen badute ere, oso arraroa zen urtetik urtera gelditzen zena.

Orain, daukaten arrobada eskasean, hirurehun bat litro aterako dute, eta haiendako merito gutxiko ardoa bada ere, kanpokoek preziatzen omen dute. «Iaz funerals izan genuen, eta kaja bat botila ardo erosi genuen gonbidatuendako. Ez zuten probatu ere egin, denek txakolina edan bait zuten».

TXAKOLINGORRIA ETA GOZOEZIA Txakolingorria da Iltzarbe-

koa, ia txuria. Gozo samarra, hala ere oraindik gordetzen du garraztasun apur hori. «Suabeegia da», diote haiek. Martxo aldera moztent dituzte txotxamarrak, eta gero kentzen dituzte adar sobrantak. Geroago, inausi berriro. Behin mahatsa bilduta, prentsan sartzen

dute, txarlan, eta zukua ateratzen denean, kupeletara sartzen dute, ontzera. «Lehen, batzuek irasagarra ere botatzen zioten, zaporea emateko».

Erabiltzen duten prentsa ere Aratzuritik ekarri zuten, baina Deierriko Hiriberrin da egina, eta lehengo egurrezko kupelen ordeztatikozkoak dute gaur egungoak. «Gasa eta zapore gehiago zuen lehenago, baina zikinagoa zen, garbituta ere, egurraren zaporea gelditzen zelako», dio Victorrek.

Hala ere, ez zaie burutik ere pasatzen saltzea edo hobeki lantzea. «Nork erosiko du hau?», galdetzen du Victorrek, «Erriberako ardoak askoz sendagoak dira, hobeak, eta gainera hemengo mahatsak jateko ere oso onak dira». Ez dakite horrekin jarraituko duten, baina emakumea beste txarla berri bat erosi behar dutelakoan dago. «Daukaguna zaharregia dago», dio.



Artazkozdarrek, txarla dagoen gelan.

OSKAR



Azken mahatsen galera

M.K. / IRUÑEA

Beste arlotan gertatzen den bezala, mahastizantzaren munduaren barruan ere, errealitate bikoitza dauka egun Euskal Herriak: Atlantikoarekin lotuta dagoena, txakolina, eta Mediterraneoar jotzen duena: Errioxa eta Erriberako ardoak. Hala ere, txakolinak askoz zabalpen handiagoa izan du historian zehar, eta historikoki, mahastizantzak garrantzi handia izan du Nafarroako Pirinio aurreko aldetan.

Mende honen hasieran, baina, eta filoxera zela eta, Nafarroako mahastiondo gehienak hondatu ziren, eta geroago mahasti gehienak berreskuratu baziren ere, ez zen horrelakorik gertatu txakoli-

na ekoizteko erabiltzen zirena-rekin.

Horrela, orain dela 30 urte oraindik 1.200 hektarea inguru zeuden txakolinarako landuta, baina 1976an soilik 245 ziren, eta 1980an, 36. 1989an, Iruñerrian soilik 11 hektarea zeuden eta zenbait ibarretan ez zegoen ordu-rako.

Egun soilik Belaskoainen, Bidaurretan, Ziritzan, Iltzarben eta Agoitzen aurki daitezke txakolingileak, baina horietariko askok utzi egin diote aurten bertan egiteari, azken bi uztak nahiko txarrak izan direla eta. Horrek mahastien galera ekarriko du, haiek diotenez, behin urtebete utzita ezin bait da mahastiak berreskuratu.



Txakolina Nafarroan

Ardo arina eta garrantza

M.K. / IRUÑEA

«Nafarroako txakolinak badu etorkizuna», dio Humberto Astibia ikertzaileak Nafarroako Gobernua argitaratzen duen 'Cuadernos de Etnología y Etnografía' azken alean agertu den bere lanean. Berak aztertu ditu inork baino gehiago Nafarroan gelditzen diren azken mahastiondo eta txakolingileak, eta txakolinaren baztertzea, ardoak daukan alkoholaren potzentaia eskasaren ondorioa izan dela dio.

Ardoa, behiala, funtsezko elikagaia zen nekazaritzako lan gogorretan, eta txakolina arin samarra izanda, jende askok nahia go izan zituen ardo sendagoak. Gainera, eta Astibiari jarraiki, Errioxa eta Erriberako ardoen modernizazio prozesuak jokuz kanpo harrapatu zuen txakolina,

Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala, gorriak edo beltzak izan dira txakolinak, baina hori ez da mahatsaren ondorioa, elaborazio prozesuarena baizik.

eta honen malda beherako prozesua arindu baino ez zuen egin.

Txakolina ez da, berez, mahastiondo mota desberdina, eta bere itxura eta zapore desberdina klimaren ondorio da. «Iruñerrian landatzen badugu —dio Astibia— Errioxan hartutako mahatsa txakolina aterako zaigu, nahitaez».

Hori dela eta, txakolinak berezko ezaugarriak ditu. Ardo arina da, afrutatua eta mikatz samarra, eta alkohol portzentaia baxua dauka (10-11 gradu). Tabernetan zerbitzerakoan kolpatu beharra zegoen, aparra atera zedin, eta horrek zapore garrantza ematen zion.


Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala, gehienetan gorri edo beltzak izan dira txakolinak —txakolingorriak—, baina hori ere ez da mahatsaren ondorioa, elaborazio prozesuarena baizik. Mahatsa bildu ondoren prentsara —'txarla'— botatzen da, eta kolorea azalaren —'brisa'— araberakoa da. Azala segituan kentzen bada, eta horrela sartzen bada kupeletara, txakolina txuria aterako da. Ordu batzuk uzten bada, gorria aterako da, eta egun batzuk uzten bada azala, beltza izango da txakolina.

Prozesuak ez zituen aldaketa handiak izaten, baina egun tikiak tokiko galduta eta ahaztuta daude zenbait prozesu. Normalean, mahatsak hankekin zapaldu egi-

ten ziren dolarean —'lago'—, eta ondoren, prentsarekin zapaltzen ziren. Hortik kupeletara, eta sobrantak —malkarrak—, ganaduari ematen zitzaizkion. Batzutan malkarrekin pattarra ere egiten zen. Zenbait lekutan

azukrea edota bildotsaren haragi puxka bat botatzen zioten.

Txakolina urtean edaten zen normalean, eta soilik zenbait botila gordetzen zen egun handietarako edota zenbait data gogoratzeko.



Humberto Astibia.

MATTIN KAPI ANSORO



Gripearen kontrako txertaketa aldia.
GRIPEARI AURREA HARTU
Txertatu

Negu honetan arrisku eta konplikazioak baztertuko dituzu. Argibideak eskatu zure Osasun Etxean edo Kontsultategian.


Nafarroako
Gobernua

Osasun
Departamentua.

Gazteendako Zokoa

Harkaitz-txoria
Tichodroma muraria
 Oso bakartia
 Tximeleta ematen du
 Erronkari Garaian



Amildegien laguna

Hegan egitean, txoria baino tximeleta ematen du harkaitz-txoriak: mugimendu oso biolen-toak egiten ditu, eta bere neurri txikiak —hamazazpi zentimetroko zabalera, baino hogeita gramobesterik ez— txori arraroa eta bitxiaren lekukoak dira.

Bere ingurugiroa amildegia dira, hortik ez bait da ia inoiz ateratzen. Horretarako primerako baliabideak ditu: atzapar sendoak, atzamar luze eta zorrotzekin, eta mokoa fin-fina eta kurbatua, harkaitzen arteko zulo-txoetan elikagaia bilatu ahal izateko.

Mugitzeko saltoka egiten du, arin eta bizkor, eta bitartean hegoak zabaltzen ditu. Orduan antzematen zaio kolore arrosa bizibizia. Bere janari gogokenak intsektu eta animali txikiak izaten dira, eta kabiak bertako arrail sakonetan paratzen ditu. Hemezortzi eta hogeita egun bitarte behar izaten ditu erruteko, eta txorikumeak hogeita eta hogeita-seiren artean izaten ohi dira.

Bestalde, oso bakartiak dira, eta ez dira sekulan gehiegi hurbiltzen. Noizbehinka ikusi ahal izaten dira baseliza edota eraikin-paretetan.

Nafarroa eta Pirinioetan arraroak dira, baina oraindik erruten dituzte Erronkari Garaian (Larra eta Ezkaurre).



Martziano bat nere etxean

AINARA ARBURUA

Urtero bezala, gure herriko bestak ailegatu ziren, eta arratsko bederatzietan bota zituzten antxaferoak, jarri genuen gure peña 'Zialdoka' eta pozik jarri ginen. Afaltzera joan ginen, eta bazegoen gauza pilo bat: entremes hotzak, oilaskoa eta azkenik postrea. Bukatu genuen hamaika t'erdietan, pixka bat berotu ginen eta oso pozik joan ginen plazara dantzatzera.

Han hasi ginen dantzan eta ez genuen kanta bat bera ere galdu, denak dantzatu genituen. Gero bost minutuko atsedendia izan genuen eta polo bat erostera joan ginen. Etorri eta berriro dantzan hasi ginen gelditu gabe. Ze eguna hura! Oso ongi pasatu nuen egun hartan, abuztuak 14 zituela.

Musika bostetan bukatu zen eta segiduan joan nintzen etxera, zeren hurrengo egunean dantzatu

behar nuen. Etxera ailegatu eta ohean sartu behar nuenean soinu bat entzun nuen, goitik zetorren, eta nola ez zegoen inor etxean, izitua esan nuen:

—Nor... dago... hor?— Eta ez zidaten erantzun, behin eta berriro baina ez zuten erantzun. Orduan igo nintzen eta ikusi nuen belar artean zer bait mugitzen zela. Hurbildu nintzen eta argi bat ikusi nuen, eskuan nabal bat nuelarik; hurbildu eta ikusi nuen etzanda gauza berde bat, metro batekoa edo horrela. Eta esan nion:

—Nor zara zu? Zer egiten duzu nere etxean? Nondik etorri zara? Nola duzu izena?— galdera pilo bat egin nion eta erantzun zidan:

—Ni martziano bat naiz, nere nabea erori eta xehetu da eta hemen sartu naiz. Martetik etorri naiz, eta Txukoli dut izena.

—Bueno, bihar egongo gara, orain herriko bestak dira eta bihar dantzatu behar dut. Orain lo egin behar dut, bale? Bihar egongo gara, ados?

—Bai, bai, ados nago, baina ez esan zure gurasoei, bale?

—Bale, agur.

—Agur. Ah, nola duzu izena?

—Aitziber.

Hurrengo eguna ailegatu zen, eta ni, ohean seietan sartu nintzen eta hamarretan esnatu. Jantzi eta bera ikustera joan nintzen, ea Txukoli han zegoen. Han zegoen eserita, eta hasi ginen hizketan. Bost minutu barru nere amak:

—Aitziber, jeitsi hortik eta goazen, benga!

—Bai, bai, oraintxe noa.

Horrela pasatu ziren bost egun, kasu gutxi egiten nion Txukoliri. Eta bere bila etorri ziren hilabete batzuk barru, baina oroipen bat utzi zidan,erloju bat oso polita.



BASAJAUN

Ostiral batzuen ondoren, lurra zaintzeko gure lana zein izan behar den argi ikusi dugu, eta onuragarria izan dela espero dut. Batzutan, garrantzi handia izan duen gai bati buruz aritu gara, egunkarian horri buruzko salaketa ager dadin.

Ba, gaur, bi gauza hauek batera izango duzue ataltxo honetan. Alde batetik garrantzi handia duelako eta bestaldetik, gure lurra ekologikoki hobetzeko beharrezkoa dugulako.

Talde ekologista gehienek dirua behar dute beraien lanek harrera ona izan dezaten. Nola lortzen dute? Zenbat dirulaguntza ofiziala jasotzen dute? Laguntza ekonomiko handiak izaten dira haien beharretarako? Zerutik eroritako diruarekin izaten al da?

Lanari ondo ekiteko, talde hauek dirua behar dute eta orain arte aportazio garrantzitsuenak bazkideak izan dira, bistan da.

Oso adierazgarria da Greenpeace talde internazionalarekin, kasu, zer gertatzen den ezagutzea. Bere barneko informazio batean azaldukoaren arabera, bere diru sarreretan bazkideek ematen dutenari esker burutzen dira kanpainak. Esukal taldeek, orain arte, material salmentetan oinarritzen zuten beren ekonomia. Azken urteotan dirulaguntza tipiren bat lortu dute. Greenpeacek duen bazkide talderik handienetakoa Espainian dago, hamabost mila baino gehiago bait dira.

Eguzkik (Euskadiko antinuklear eta ekologistak), aurtan bazkideak lortzeko, kanpaina gogor bat zabaldu behar du.

Jenero Xumekoak

Edadeko emakumeek burua uretan ez murgiltzeko zergatiak

Gizonak, igeri egiteko betaurrekoak bezalakotsuak ditun. Zahararren zaharrez hobiratzen direnak, oso gutxi. Gehienak bi-dean, harat-honatan galdu ohi ditun. Betaurrekoetan onenekin ere kloroa begietara sartzen zain eta azkenean amore emanda, halaxe esaten bait da, negarrez adio esaten dion negarrezko haran honi.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Zoratu
3. Erabateko
4. Itorik
5. Irabaziak

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Natura
2. Ohar
3. Herri nafarra
4. Tua
5. Gaiak

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Herri nafarra
2. Ereduzko zati
3. Logura
4. Metal preziatu
5. Guztira

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

Zaharrak berri

Txapel batekin bi buru estali nahi.

Ezinezko gauza egin nahi izate.

Larraun

Badakizu bai zein haritzei darrion ezkurte.

Laguntzaile onari lotzen zaion naz esana.

Mezkiritz

Udaletxera paperen bat betetzera joan zen behin herriko bat, eta idazkariak esan:

—Emaizkidazu izen-abizenak.

Besteak, bekozkoa beztuta:

—Izen-abizenak zuri eman?

Neu batere gabe gelditzeko ala?

Bizi Bizian

Sanferminak uztailearen 7an direla dio abesti famatuak, eta gutxi jakarriko dute zalantzan. Hala ere, badaude irailean ospatzen diren beste sanferminak, sanfermin txikitoak. Aldapako San Ferminaren omenez egindakoak, bertan batzen dira Navarrerria Parte Zaharreko auzokoen jaiak eta Udalak antolatzen

duen egitaraua. Aurten entzierroak eta guzti izango dira eta peñek Jarauta kalean bazkari erraldoia egingo dute larunbatean.

duen egitaraua. Aurten entzierroak eta guzti izango dira eta peñek Jarauta kalean bazkari erraldoia egingo dute larunbatean.

Beste sanferminak

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Asteburu honetan San Ferminen omenezko bi ospakizun batuko dira Iruñean, biak aspaldidanik ondoan baina nahastu gabe izan direnak. Alde batetik, Navarrerria kaleko festak, Aldapako San Ferminen omenez egindakoak eta bestaldetik, San Fermin 'txikitoa', Udalak antolatuta. Bien artean giro berezia ematen diote irailaren asteburu honi, eta noiz edo noiz San Fermin handiak ere ordezkatu egin dituzte.

Aurten, inoiz baino handiagoak izango dira, Udalak eta peñek partehartze zuzena izan dute egitarauan. Lehendabiziko aldiz, bi entzierro izango dira, larunbat eta igandean, bai eta bi



musika antolatu. Honen arrazoiak, Zudaireren esanetan, azken urteotan bertako tabernekin izandako arazoak. «Festen gastuak ordaintzeko beti eskatzen genien laguntza tabernei berbernak antolatzeko, azken finean haiek bait dira etekin handiena ateratzen dutenak. Azken urteotan, baina, askok ez zuten ordaintzen, eta iaz talde batzuek ezin izan zuten kobratu horregatik. Hori dela eta, aurten esan genien musika nahi izanez gero beraiek antolatu behar zutela». Musika ez da faltako, tabernei bi berbera antolatu bait dute astebururako, baina erabakiak haserre sortu du zenbaitzuren artean.



Txarangak eta buruhandiak ez dira faltako Parte Zaharrean. J. LACALLE

Aurten, eta lehendabiziko aldiz, bi entzierro izango dira, zezenketekin, larunbat eta igandean, eta peña gehienak joango dira zezenplazara, giroa berotzera.

zezenketa ere eta peña gehienak zezenplazara joango dira, Navarrerria kaletik abiatuta, giroa berotzera. Iaz entzierro bakarra antolatu zen, eta aurretik soilik 1978ko urtean eginak ziren zortzi entzierro irailean, Sanferminak bertan behera gelditu ziren eta, istilu larrien kariatz.

Halaber, Udalak inoiz baino dirulaguntza handiagoa —milioi bat pezeta— eman die Navarrerria kaleko festen antolatzaileei, eta Daniel Zudaire festen batzordekoak azaldu duenez, «orain arte beti beraien atzetik ibiltzen baginen, aurten haiek etorri dira guregana, ea zerbait antolatu behar genuen galdezka». Horretaz gain, Udalak ohizko egitaraua prestatu du egunotarako, eta bi entzierro eta zezenketaz gain, su festak izango dira Gotorlekuan eta musika Taconeran, Basotxoan eta Gaztelu plazan.

Peñek ere giroa jarriko dute Parte Zaharrean, eta zezenketetara joateaz gain, larunbatean herri bazkaria antolatu dute Jarauta kalean bertan.

Navarrerria kaleko egitarauaren barruan, aipatu behar da aurten lehendabiziz ez dela ofizialki

Iruñean bi San Fermin eta bi Sanferminak daudela ia bakarrik iruindarrek dakite, baina askoren ustetan, irailaren hasieran ospatzen diren haiek, mundu osoan famatuak diren besteen tamainakoak ez izanda ere, 'mundialak' dira, batez ere ezagunen artean egiten direlako.

Udala eta Navarrerria Parte Zaharreko auzoko jaietako batzordearen artean, bakoitza bere aldetik, baina inoiz baino giro hobean, asteburu beroa antolatu dute aurten, beste garaietako gorabeherak ahaztuta. Jose Luis Larrionek esaten duen bezala,

'bakea dakarren kapotea' da San Fermin txikitoarena.

Baina nondik bi San Fermin? Iruñeko San Ferminaz aparte, San Lorenzon dagoena, Parte Zaharrearen beste muturrean, Navarrerria auzoan, Aldapa kalean, San Fermin 'txikitoa' dago, Iruñea burgo eta auzoen artean banatuta zegoen garai hartakoa.

Aldapako San Ferminari beti San Fermin 'txikito' deitu ohi zaio, San Lorenzokoaren aurrean anai gazteena izan bait da. Hala ere, 'txikito' izen hori eztabaidagarria izan daiteke, historialari batzuen ustetan, Aldapako San Fermineko kaperan altxatu bait zen Firmoren etxea, Firminioren

—San Fermin— aitaren etxea, hain zuzen ere.

Festen datak oso lotuta daude San Ferminen Amiensaren izan zuen martirioarekin. 1591 baino lehen Sanferminak urriaren 10ean ospatzen ziren, egun hartan heldu bait zen San Fermin Frantziako herrira. Urte hartan, baina, uztailearen lehendabiziko igandera pasa ziren, batzuen ustetan eguraldiak ez zuelako laguntzen zezenketak antolatzeko orduan.

Navarrerria kaleak San Fermin txikitoaren omenezko jaiak segida eman zien, eta kale batekoak izanda ere, urtetik urtera lortu dute Iruñea osoan ospe eta fama.

EGITARAUA

Ostirala, 18

- 12.00: Txupinazoa.
- 12.15: Erraldoien konpartsek eta txarangak auzoen karrikak zeharkatuko dituzte.
- 17.30: Buruhandien konpartsa kaletik zehar arituko da.
- 18.30: Haurrendako txokolatada Santa Cecilia plazan.
- 20.00: Haurrendako entzierroa Navarrerria, Curia eta Carmen kaletatik.
- 20.30: 'Gaiteros Fraile' taldearekin dantzaldia Santa Cecilia Plazan.
- 21.00: Txarangak auzoko karriketan zehar arituko dira.
- 21.00: Bertoko musikaren jaialdia Aldapa kalean: Iruñeko albokariak, Iruñeko txalaparta, Harkaitz txistulariak, Donibane gaiteroak eta Neska-mutilak akordeolariak.
- 22.00: Zezensuzko.
- 23.00: Musika auzoan.

Larunbata, 19

- 8.00: Argi-soinuak 'La Pamplonaren' eskutik.
- 10.00: Kartin eta haurrendako jolasak San Jose Plazan.
- 12.00: Dantzaldia Santa Cecilia plazan, Iruña taldea eta Danok-Bata Dantzari taldearekin.
- 12.30: Iruñeko Erraldoi eta Buruhandien konpartsa karriketan.
- 13.00: XII. Gurdien krossa.
- 13.30: Oiloen laisterketa.
- 14.00: Marmitakoan lehiaketa Redin txikitoan.
- 16.00: Karting eta haurrendako jolasak San Jose Plazan.
- 18.30: Auzoko Buruhandien konpartsa irteera.
- 20.00: Haurrendako entzierroa.
- 20.30: Joten lehiaketa, 'Grupo Navarrerriaren' eskutik.
- 22.00: Zezensuzko.
- 22.15: Afari herrikoia kaleetan.
- 23.00: Musika kaleetan txarangekin.
- 24.00: Zarpantzar auzoko kaleetan zehar.

Igandea, 20

- 7.00: Auroroak.
- 8.00: Argi-soinuak 'La Pamplonaren' eskutik.
- 10.00: Otapurrekin hamarretakoa Santa Cecilia plazan.
- 11.30: Meza Nagusia Aldapako San Fermin basilikan, 'Voces Graves' taldearekin.
- 12.00: Prozesioa kaleetan zehar, udala, konpartsa, dantzariak eta bandarekin.
- 13.30: Konpartsa dantzaldia, San Ferminen omenez.
- 13.30: Joten jaialdia Santa Cecilia plazan, 'Gracia Navarra' taldearen eskutik.
- 17.00: Haurrendako animazio taldearen emanaldia Santa Cecilia plazan.
- 18.30: Herri kirola San Jose plazan. Bertan Iñaki Perurena arituko da.
- 20.00: Haurrendako azken entzierroa.
- 20.15: 'Nobleza Baturra' taldearen ekitaldia, Burgoen plaza.

Txikito eta handia

P.U. / IRUNEA

Blanca Garnica

Eskultorea

Leringo eskultore gazte honek Nafarroako Gobernuak sormen lanei iaz emandako laguntza jaso zuen: Parisera hiru hilabete eta erakusketa bat, hain zuzen. Abuztuan Iruñean, egunotan Elizondan eta urrian Tuteran ikusi ahal izango dira lan bitxi hauek, erakustoki bakoitze-tarako bereziki prestatuak. Berak esaten duen bezala, «garrantzitsuena espazioa bait da».

«Arteak sentikortasuna bultzatu behar du»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Iruñean paratu zenuen erakusketan batez ere hiru material mota erabiltzen zenuen: kautxua, fluorargia eta egurra, eta bereziki lehendabiziko biak. Zer garrantzia du material bakoitza aukeratzeko?

BLANCA GARNICA.— Material hauek Arte Ederretako karreraren amaieran erabili nituen, eta oraindik beraiekin ari naiz lanean. Sinologiaren aldetik, lehendabiziko momentuetan kautxua eta fluorargia oso osagarriak ziren, eta joan den urrian Iruñean paratu nuen beste erakusketan dena zen bi material horiek, argazkiekin batera. Oraingo erakusketetan berdindu egin dira biak, eta sartu ditut ura eta beste materialak. Kautxua, nerendako heriotza da, eta argia, bizitza. Orduan, horrelako sinbologia dago, bikoitza. Argiak denak nahastu eta betetzen du.

EGUNKARIA.— Sinbologia hauek benetan bizi egiten dituzu, edo kontzeptu teoriakoak dira, zure lana

azaltzeko moduak?

GARNICA.— Nik horrela sentitu egiten ditut. Orain Elizondan paratu dudan horretan argia beroagoa da, ez da lehen erabiltzen nuen urdin hori, baina ez dakit zehatz mehatz zergatik, ez dira kontzeptu teoriko hutsak. Eten-gabe ari naiz ikertzen, eta ezin dut esan beti erabiliko ditudala material hauek edo besteak. Lan bakoitzak ideia eta material desberdinak eskatzen dizkit.

EGUNKARIA.— Zure lanen artean badaude horrelako erabilera izan dezaketenak, gelen argikuntzarako edo, eta besteak arte

lan hutsak direnak. Erabilerarik izan behar al dute?

GARNICA.— Nere arteak sentikortasuna bultzatu behar du jendearengan, bai erakusketa batean, nola etxeko gelan edo eraikin publiko batean. Bestela ez luke zentzurik izango.

EGUNKARIA.— Pintura utzi egin zenuen. Zer aurkitzen diozu eskulturari?

GARNICA.— Askok hobeto lantzen dut eskultura, eta bertan aurkitzen dut pinturan topatu ez dudana. Pintura, espazioaren alorrean, askoz ere mugatuagoa da, eta nere erakusketak ez

dira lan hutsak, pilatuta, baizik eta erakusketa horretarako bereziki prestatuak. Orduan espazioak izugarriko garrantzia dauka neretzat, eta hori ez dut aurkitzen pinturan.



EGUNKARIA.— Artista bakoitzak arte bakar batera mugatu beharra dauka?

GARNICA.— Ez, ez, aldrebes, gero eta joera handiagoa dago multimedietarako, hau da, gauza guztiak nahasteko eta beraiekin jokatzeko. Baina pintura askoz mugatuagoa dago materialei dagokienez.

EGUNKARIA.— Parisen hiru hilabete eman dituzu, Erasmus bekarekin. Nola suertatu zaizu esperientzia?

GARNICA.— Izugarria, oso polita. Parise, eskultore batentzat, arkeologo batentzat Egipto bezalakoa da.

Iruñean paratu zuten erakusketan fluorargia eta kautxua zituen material erabilienak Leringo artista gazteak. SEBER UGARTE



Iruñeko erakusketan paratutako lanetako bat. SEBER UGARTE

EGUNKARIA.— Artista gazteok, atzerrira joan behar izaten duzue, nahiz eta azken urteotan arteak gorakada nabarmena izan duen hemen. Derrigorrezkoa al da kanpora joate hori?

GARNICA.— Derrigorrezkoa, ez dakit. Adibidez, Iruñean ezin dituzu aurkitu abangoardiako mugimenduak, baina Parisen ere ez zegoen desberdintasun handirik kanpoko eta hemengo gazteen lanen artean. Orduan, ezin da esan dena kanpoan dagoela eta hemen ez dagoela ezer.

EGUNKARIA.— Eta nola ikusten duzu Euskal Herriko egoera, batez ere artista gazteendako?

GARNICA.— Bilbon eta Gasteizen nahiko mugimendu politikak daude, Iruñean baino askoz gehiago, dudarik gabe. Iruñea, nola esango nuke... askoz atzerakoia da gai guzti hauetan.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

